



EAEko esportazioak %4,9 hazi ziren apirilean

Atzerrira esportatutako ondasunak
Urte bakoitzeko apirila. Milioioak




Iturria: Eustat.

Apirilean, Euskaditik atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak %4,9 gehitu ziren, aurreko urteko hil berarekin alderatuta. Bilakaera horren arrazoia produktu energetikoek (%38,4) eta ez-energetikoek (%3,6) izan zuten portaera ona izan zen.

Atzerritarren afiliazioak gora egin du berriro

Atzerritarren afiliazioak
Balio absolutua




Iturria: Gizarte Segurantza.

Gizarte Segurantzak argitaratutako azken datuen arabera, **maiatzean atzerritarren afiliazioa %7,5 hazi zen aurreko urteko aldi beraren aldean.** Zehazki, 95.570 afiliazio daude jada atzerriko nazionalitatea duten pertsonen artean, eta horixe da serie historiko osoko erregistrorik handiena.



Turismoen matrikulazioa handitu egin da EAEn

Turismoen matrikulazioa EAEn
Urte bakoitzeko urtarriletik maiatzera



Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT).

DGTk argitaratu berri duen informazioaren arabera, **EAEn, maiatza arte, 11.700 auto saldu ziren, aurreko urteko aldi berean baino %3,3 gehiago**. Horrela, azken urteetako joera berresten da, baina egia da saldutako unitateak pandemiaren aurreko urteetan lortutako erregistroen oso azpitik geratu direla.

Hoteletako gaualdiek goranzko joerari eutsi diote

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko maiatza. Milakoak



Iturria: Eustat.

Maiatzean, hotel establezimenduetako gaualdiak %8,7 gehitu ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean. Zehazki, 686.000 gaualdi baino gehiago erregistratu ziren, hau da, maiatz batean serie historiko osoan lortutako erregistrorik handiena.